# SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN KENKARIAK 2025

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>PORTZENTAJEA</th><th>OBLIGAZIOAK</th></tr>
<tr>
<td rowspan="2">61. artikulua. Aktibo ez korronte berrietako inbertsioen ziozko kenkaria</td>
<td>a) Ibilgetu materialeko edo higiezinetako inbertsioetako aktibo finko berriak eskuratzeko ordaintzen diren kopuruak, lursailak IZAN EZIK.<br>b) Pabilioi industrial birgaituak eskualdatzeko asmoarekin eskuratzea, pabilioi industrialak birgaitzeko asmoarekin eskuratzea edota enpresaren aktiboetan dauden pabilioi industrialak birgaitzea (ez dira sartzen horien lursailak).<br>c) Aplikazio informatikoak.<br>d) Finantza errentamenduko lehenagoko elementuak.</td>
<td>Kenkariaren oinarriaren % 10</td>
<td rowspan="2">a) Berria<br>b) Atxikia<br>c) Aktibo ez korronte moduan kontabilizatzea.<br>d) Aktiboen amortizazioaldia gutxienez bost urtekoa izango da, aplikazio informatikoetan izan ezik.<br>e) Ezin dira izan Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian kuota positiboa duten garraio elementuak. Turismo ibilgailu batzuk kenkaritik salbuetsita daude (67.3)<br>f) Inbertsio pizgarria.<br>g) Pizgarria izan dezaketen inbertsioen zenbatekoa honako hau izan behar da: a) ibilgetu materialaren, higiezinen inbertsioen eta aplikazio informatikoen aktibo ez korronteak aurretik zituen KBGen baturaren ≥ % 10; b) edo 5 MM euro baino gehiago.<br>h) Ondasunak higigarriak badira inbertsioa 5 edo 3 urtez mantendu behar da, horien aldi baliagarria laburragoa ez bada.</td>
</tr>
<tr>
<td>a) Aktibo ez korronteko elementuetan egindako inbertsioak, kontabilitatean hobekuntza modura agertzen badira.<br>b) Eragiketa errentamenduetan, errentariak errentatutako eta lagatako elementuan egiten dituen inbertsioak</td>
<td>Kenkariaren oinarriaren % 5</td>
</tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>PORTZENTAJEA</th><th>OBLIGAZIOAK</th></tr>
<tr><td>61 bis artikulua. Hiriko bizikletan inbertitzearen kenkaria</td><td>Hiriko bizikletak erostea<ul><li>Motor elektrikoz lagundutako bizikleta pedaldunak (banakako gehieneko kenkari oinarria: 3.000 euro)</li><li>Hiriko beste bizikleta batzuk (banakako gehieneko kenkari oinarria: 500 euro)</li></ul></td><td>Kenkariaren oinarriaren % 10<br><br>Kenkariaren oinarri osoa ezin izango da 15.000 eurotik gorakoa izan mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, ezta 20.000 eurotik gorakoa ere gainerako kasuetan.</td><td>Bizikleta horiek erabiliko dira entitateko langileek beren ohiko bizilekutik lantokira edo alderantziz egin beharreko joan-etorrietarako.<br><br>Inbertsioa hiru urtez mantentzea, salbu eta balio bizitza txikiagoa bada.<br><br>Kenkariaren oinarritik kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa gutxituko da.</td></tr>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>PORTZENTAJEA</th><th>OBLIGAZIOAK</th></tr>
<tr><td>61 ter artikulua. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetan inbertitzearen kenkaria</td><td>Kargaguneetan inbertitzea (zerbitzuan jartzeko beharrezkoak diren obra zibila, instalazioak, kableatuak eta konexio puntuak barne):<ul><li>Potentzia normaleko kargaguneak (banakako gehieneko kenkari oinarria: 5.000 euro)</li><li>Potentzia altuko kargaguneak (banakako gehieneko kenkari oinarria: 25.000 euro).</li></ul></td><td>Kenkariaren oinarriaren % 15<br>(kenkari bateratuaren urteko muga: 10.000 euro)<ul><li>% 5 gehigarria, kargagunea sarbide publikoko toki batean badago</li><li>% 2 gehigarria, potentzia 7,4kW eta 22kW artekoa bada.</li><li>% 5 gehigarria, potentzia 22kW eta 50kW artekoa bada.</li></ul></td><td>Instalazioek 1053/2014 Errege Dekretuan (ITC BT-52) ezarritakoa bete beharko dute.<br><br>Inbertsioa hiru urtez mantentzea, salbu eta balio bizitza txikiagoa bada.</td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | PORTZENTAJEA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| **62. artikulua. Kenkaria ikerkuntza eta garapen jarduerengatik (I+D)** | ▪ I+Gn egindako gastuak, barne sartuta jarduera horiei lotutako ondasunen amortizazioa, jarduera horiekin zuzenean lotuta dauden eta jarduera horiek benetan gauzatzen erabiltzen diren neurrian. Proiektuen arabera banakatuta jasota utzi behar dira gastuak. | **(a)** Zergaldian egindako I+Gko gastuen **% 30**.<br>**(b)** %35, I+G gastuak ingurumen inpaktu negatiboa nabarmen murriztearekin lotuta badaude (65.1 artikulua).<br>Zergaldian I+Gn izandako gastuak handiagoak badira aurreko bi urteetan egindako gastuen batez bestekoa baino, (a) eta (b) letrei dagokien ehunekoa aplikatuko da batez besteko horretara iritsi arte, eta %50 (a) letran adierazitakotik gorako soberakinari eta %55 (b) letran adierazitakotik gorakoari.<br>Horrez gain: | Kenkaritik salbuetsitako gastuak: bidaia-gastuak, dietak, egonaldia eta lokomozioa; prestakuntza; proiektuaren dokumentazioa; proiektuaren kudeaketari eta ziurtapenari lotutako aholkularitza eta ziurtapena; administrazioa eta bulegoko materiala, eta enpresaren gastu orokorrak. |
| | ▪ Erakundeko langileria gastuengatik, I+G jarduerei oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkienean. | Gastuen **% 20** | Ondasunak higigarriak badira ondare elementuak 5 edo 3 urtez mantendu behar dira, horien aldi baliagarria laburragoa ez bada. |
| | ▪ Unibertsitateekin, ikerkuntzako erakunde publikoekin eta beste batzuekin kontratatu diren I+G proiektuak. | Gastuen **% 20** | |
| | ▪ I+Gko jarduerak dituzten mikroenpresak eta enpresa txikiak kontratatzeagatiko gastuak (65.1 artikulua). | Gastuen **% 20** | |
| | ▪ I+Gko jarduerak dituzten enpresa berritzaileen kontratazio gastuak (66 bis.2 artikulua) | Gastuen **% 20** | Kenkariaren oinarritik kenkarirako eskubidea sortzen duten proiektuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da. |
| | ▪ Ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementuetan (higiezinak eta lursailak izan ezik) egindako inbertsioak, baldin eta I]G jarduerei oso-osorik lotuta badaude. | Inbertsioen **% 10** | |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | PORTZENTAJEA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| **63. artikulua. Kenkaria berrikuntza teknologikoko jarduerengatik.** | Berrikuntza teknologikoa da ondasun edo zerbitzu berriak edo hobetuak merkatuan sartzea ahalbidetzen duen aurrerapen teknologikoa, edo enpresan negozio prozesu berriak edo hobetuak ezartzea, lehiakortasuna hobetzen laguntzeko. | | Kenkaritik salbuetsitako gastuak: bidaia-gastuak, dietak, egonaldia eta lokomozioa; prestakuntza; proiektuaren dokumentazioa; proiektuaren kudeaketari eta ziurtapenari lotutako aholkularitza eta ziurtapena; administrazioa eta bulegoko materiala, eta enpresaren gastu orokorrak. |
| | a) Unibertsitateei, ikerkuntzako erakunde publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroei, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta dauden erakundeei agindutako proiektuak. | Ekitaldiko gastuen **% 20** | |
| | b) Software ingeniaritza, diseinu industriala eta ingeniaritza, eta produktu berriaren edo negozio prozesuaren diseinua. | Ekitaldiko gastuen **% 15** | |
| | c) Teknologia aurreratua eskuratzea: patenteak, lizentziak, "know how" eta lotuta ez dauden erakundeei erositako diseinuak. Gehienez milioi 1 euro. | Ekitaldiko gastuen **% 15** | |
| | d) Berrikuntzaren kudeaketarekin lotutako ISO 56002, UNE 166000 edo antzeko arauen betetze ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeari dagozkion gastuak barne hartu barik. | Ekitaldiko gastuen **% 20** | |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | PORTZENTAJEA | OBLIGAZIOAK |
|---|---|---|---|
| **64. bis artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapeneko proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan (I+G+b) parte hartzeagatik.** | Entitate finantzatzaile bati emandako kenkaria beste erakunde batzuek egindako proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik, betetzen badituzte SZFAren 62. artikulutik 64.era bitartean jasotako kenkarirako eskubidea sortzeko bertan ezarritako baldintzak.<br><br>Kenkari hau erabat edo partez bateraezina da entitate garatzaileak jaso lezakeen kenkariarekin.<br><br>Ikusi pizgarriak dituzten jarduerak 62. artikuluan (I+G) eta 63.ean (b) ezarritako kenkariei buruzko aurreko tauletan.<br><br>Kenkari hori aplikatuko zaie, halaber, establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo jarduera ekonomikoaren etekinak lortzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei. | Ikusi ehunekoak 62. artikuluan (I+G) eta 63.ean (b) ezarritako kenkariei buruzko aurreko tauletan.<br><br>Mugak:<br><br>Ordaindutako zenbatekoa bider **1,20** (soberakina entitate garatzaileak aplika lezake) | Entitate finantzatzaileak ezin izango du finantzatutako proiektuaren gaineko jabetza eskubiderik eskuratu.<br><br>Bi entitateek finantzaketa kontratua izenpetu behar dute 64 bis artikuluko baldintza eta epeen arabera (epeak luzatu dira 2025etik aurrera hasitako ekitaldietarako).<br><br>Aplikatutako kenkarien eta finantzatzaileak ordaindutako zenbatekoen arteko alde positiboa BIan sartuko da (39.9 artikulua).<br><br>Emandako funtsak ekitaldiko edo hurrengo ekitaldietako kostuak finantzatzeko erabili behar dira. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>PORTZENTAJEA</th><th>OBLIGAZIOAK</th></tr>
<tr><td rowspan="3">65. artikulua. Garapen jasangarria, ingurumenaren gaineko inpaktua murriztea, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzeko proiektuekin lotutako inbertsioen eta gastuen kenkaria.<br><br>(ikus 2025etik aurrerako tipologia berriak)</td><td>Hauetan egindako inbertsioak eta/edo gastuak, kasuaren arabera:<br><br>a) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: energia iturri berriztagarriez sortzeko instalazioak, hidrogeno berdearen instalazioak edo erregai berriztagarrien instalazioak.<br><br>b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: iturri berriztagarriek, hidrogeno berdeak edo erregai berriztagarriek sortutako energia kontsumitzen duten instalazioak eta horiekin lotutako ekipamenduak, energiaren aldetik efizienteak direnak.<br><br>c) Iturri berriztagarrietako energia errazago garraiatzeko eta banatzeko ekipamenduak eta instalazioak.<br><br>d) TGEZen sartutako instalazioak.<br><br>e) Emisioak biltzeko instalazio efizienteak, prozesu berriztagarrietan erabiltzeko.<br><br>f) Ekonomia zirkularra bultzatuko duten instalazio efizienteak.</td><td>% 35</td><td rowspan="3">▪ Kenkariaren oinarritik kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioak edo gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da.<br><br>▪ Kenkariaren oinarria ez da 40.000 eurotik gorakoa izango Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartutako turismo ibilgailuentzat (TGEZ)<br><br>▪ AFAren Ingurumen Sailaren edo EJren ziurtagiria.<br><br>▪ Ondasunak higigarriak badira ondare elementuak 5 edo 3 urtez mantendu behar dira, horien aldi baliagarria laburragoa ez bada.</td></tr>
<tr><td>Euskadiko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko asmoz, ekitaldian lur kutsatuak garbitzeko ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako inbertsioak eta izandako gastuak.</td><td>% 15</td></tr>
<tr><td>Aktibo berrietan egindako inbertsioak, proiektu hauetarako:<br><br>a') Hondakinen balorizazioa.<br><br>b') Mugikortasuna eta garraio jasangarria.<br><br>c') Naturaguneetako ingurumena berroneratzea.<br><br>d') Uraren kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.<br><br>e') Efizientzia energetiko handiagoko instalazioak berritzea.<br><br>f') Mugikortasun eta garraio jasangarria.</td><td>% 15</td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | PORTZENTAJEA | OBLIGAZIOAK |
| --- | --- | --- | --- |
| **65 bis artikulua. Garapen jasangarria, ingurumenaren gaineko inpaktua murriztea, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzeko proiektuetan parte hartzearen kenkaria.** | Entitate finantzatzaile bati emandako kenkaria beste erakunde batzuek egindako eta 65. artikuluan jasotako kenkarirako eskubidea sortzeko bertan ezarritako baldintzak betetzen dituzten proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik.<br><br>Kenkari hau erabat edo partez bateraezina da entitate inbertitzaileak jaso lezakeen kenkariarekin.<br><br>Ikus aurreko taulan sustatutako jarduerak, 65. artikuluan aurreikusitako kenkariei dagokienez<br><br>Kenkari hori aplikatuko zaie, halaber, establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei edo jarduera ekonomikoaren etekinak lortzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei. | Ikus aurreko taulan 65. artikuluan xedatutako kenkarien ehunekoak.<br><br>Muga:<br>Ordaindutako zenbatekoaren %**1,20** (soberakina entitate garatzaileak aplika lezake) | Erakunde finantzatzaileak ezin izango du finantzatutako proiektuaren gaineko jabetza eskubiderik eskuratu.<br><br>Bi erakundeek finantzaketa kontratu bat sinatu behar dute, eta Ogasunari jakinaraziko zaio, 65. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.<br><br>Aplikatutako kenkariaren eta finantzatzaileak ordaindutako zenbatekoen arteko alde positiboa ZOn sartuko da (39.9 artikulua).<br><br>Emandako funtsak ekitaldiko edo hurrengo ekitaldietako kostuak finantzatzeko erabili behar dira. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | PORTZENTAJEA | OBLIGAZIOAK |
|---|---|---|---|
| **66. atala. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.** | N zergaldian lan kontratu mugagabearekin eta LGStik gorako soldatarekin —% 70 handiagoa— kontratatu den pertsona bakoitzeko. | **7.000 euro (34/2021 FA)**<br><br>Proportzionala, lanaldi partzialeko kontratuetan | ▪ N zergaldia amaitzean izan duen lan kontratu mugagabedun langile kopurua mantentzea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan zehar. Eta langile kopuru hori handiagoa izatea Nren hasieran zegoena baino, gutxienez pizgarria izan dezaketen unitateetan.<br>▪ N+3 ekitaldian dagoen lan kontratu mugagabedun langileen kopurua N-1 zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izan behar da (kontratuak egin ziren zergaldiaren aurreko egun guzti-guztietan).<br>▪ Eskakizun hauek bete egin beharko dira lan kontratu mugagabea duten pertsonen eta pizgarria izan dezaketen unitateen kasuan.<br>▪ Kentzeko eskubidea sortzen duen pertsonari egotzi beharreko soldata bere horretan mantentzea edo igotzea eta diskriminaziorik ezaren erantzukizunpeko adierazpena. |
| | N zergaldian lan kontratu mugagabearekin kontratatu den pertsona bakoitzeko, baldin eta pertsona horiek lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituen talderen batean sartzen badira eta LGStik gorako soldatarekin —% 70 handiagoa— kontratatu den pertsona bakoitzeko.<br><br>(ikus kolektiboen zerrenda SZ Erregelamenduaren 38. artikuluan) | **14.000 euro (34/2021 FA)**<br><br>Proportzionala, lanaldi partzialeko kontratuetan | ▪ N zergaldia amaitzean izan duen lan kontratu mugagabedun langile kopurua mantentzea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan zehar. Eta langile kopuru hori handiagoa izatea Nren hasieran zegoena baino, gutxienez pizgarria izan dezaketen unitateetan.<br>▪ N+3 ekitaldian dagoen lan kontratu mugagabedun langileen kopurua N-1 zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izan behar da.<br>▪ N zergaldia amaitzean izan den zailtasun bereziko taldeko lan kontratu mugagabedun langileen kopurua mantendu behar da hurrengo 3 urteetan amaitzen diren zergaldietan zehar.<br>▪ N+3 ekitaldian dagoen zailtasun bereziko taldeko lan kontratu mugagabedun langileen kopurua N-1 zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izan behar da.<br>▪ Kentzeko eskubidea sortzen duen pertsonari egotzi beharreko soldata bere horretan mantentzea edo igotzea eta diskriminaziorik ezaren erantzukizunpeko adierazpena. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>PORTZENTAJEA</th><th>OBLIGAZIOAK</th></tr>
<tr><td rowspan="2">66. bis artikulua. Kenkaria, mikroenpresa, enpresa txiki edo ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutakoetan inbertitzeagatik.</td><td>Mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren eta jarduera ekonomiko berri bat gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak dituzten enpresa sortu berri edo duela gutxi sortuetako akzioak edo partaidetzak harpidetzea edo eskuratzea.</td><td>% 25<br>(kenkariaren oinarria kapitalaren akzioen edo partaidetzen % 25erainoko eskuratze balioa izango da gehienez ere, fiskalki lotutako erakundeek dituztenak ere kontuan hartuta)</td><td rowspan="2">• Partaidetutako entitatearen forma juridikoa: SA, SRL, kooperatiba, SAL edo SRLL<br>• Partaidetzapeko empresa ezin da negoziatzeko onartuta egon.<br>• Eraketaren unean eskuratzea edo kapital zabalkuntza baten bidez edo bigarren mailako merkatu batean, eraketaren ondoko bost urteetan (7 urte, enpresa berritzaileen kasuan)<br>• Parte-hartzeari 5 urtetik gorako epean eustea<br>• Partaidetzapeko enpresa ezin da Europako Batzordearen erabaki baten osteko berreskuratze agindu baten mende egon; ezin da krisian egon Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, eta ezin du arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu, erregelamendu horren arabera.<br>• Partaidetzapeko enpresak ziurtagiri bat egin beharko du baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.</td></tr>
<tr><td>Mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren berrikuntzaren arloko enpresetan edo zilarrezko ekonomiarekin zuzenean lotutakoetan (adinekoen sektoreak eskatutako jarduerak) akzioak edo partaidetzak harpidetzea edo eskuratzea.</td><td>% 35<br>(kenkariaren oinarria kapitalaren akzioen edo partaidetzen % 25erainoko eskuratze balioa izango da gehienez ere, fiskalki lotutako erakundeek dituztenak ere kontuan hartuta)</td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>EHUNEKOA</th><th>OHARRAK</th></tr>
<tr><td rowspan="3">66 ter artikulua Kultura sustatzeko pizgarriak</td><td>Ikus-entzunezko lanen ekoizpenetako inbertsioak eta gastuak<br>(film luze eta labur zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpenak, bai eta fikziozko, animaziozko edo dokumentaletako ikus-entzunezko serieenak ere).<br><br>Kenkariaren oinarria: ekoizpenaren kostua, kopiak egiteko gastuak eta produktorearen konturako publizitate gastuak eta sustapen gastuak (salbu eta dirulaguntzak).<br><br>Produktore exekutiboaren kenkariaren oinarria (establezimendu iraunkorrik gabeko produktore ez-egoiliarrarena): hark jasandako kostua.</td><td>% 60, gastuen eta inbertsioen % 50 baino gehiago EAEn egin bada<br><br>% 50, EAEn egindako gastuak eta inbertsioak % 35 eta % 50 artekoak badira.<br><br>% 10 gehiago, jatorrizko bertsio bakarra euskaraz duten lanetarako.<br><br>Mugak: 10MM ekoizpeneko eta 3MM atal bakoitzeko (ikus-entzunezko serieen kasuan).</td><td>Jasotako laguntza guztiek (bai eta kenkaria ere) ezin dute ekoizpen orokorreko aurrekontuaren % 50 gainditu. Muga hori % 60koa da mugaz gaindiko ekoizpen jakin batzuen kasuan. Horri buruzko informazioa, SZren autolikidazioarekin batera.<br><br>Mugarik gabe zailtzat jotzen diren ikus-entzunezko lanetan (baimena eman ondoren).<br><br>Titulartasuna: 3 urte.<br><br>Ziurtagiria lortzea.<br><br>Kopia berri bat gordailutzea Euskadiko Filmategian.</td></tr>
<tr><td>Arte eszenikoen eta musikaren arloko zuzeneko ikuskizunak<br><br>Kenkariaren oinarria: zuzeneko kostu artistikoak, teknikoak eta sustapenekoak (salbu eta dirulaguntzak).</td><td>Ekoizpen eta erakusketa gastuen % 30<br><br>Ekoizpen eta erakusketa gastuen % 40, ikuskizuna euskaraz eta elkarrizketekin bada.<br><br>Kenkariaren muga: 1 MM zergadun bakoitzeko.</td><td>Jasotako laguntza guztiek (bai eta kenkaria ere) ezin dute gastuen % 80 gainditu (zergadun bakoitzeko muga) Horri buruzko informazioa, SZren autolikidazioarekin batera.<br><br>Ziurtagiria lortzea.<br><br>Lortutako etekinen % 50 kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jardueretara bideratu beharko da (gehieneko epea: hurrengo 4 urteetara arte).</td></tr>
<tr><td>Liburuen edizioa<br><br>Kenkariaren oinarria: serieko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat taxutzeko aukera ematen duten inbertsioak (salbu eta dirulaguntzak).</td><td>Kenkariaren oinarriaren % 10</td><td></td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | EHUNEKOA | BETEBEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **66 quater artikulua. Ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen edo liburuen argitalpenaren finantzaketan parte hartzearen kenkaria** | Entitate finantzatzaile bati emandako kenkaria, kultura proiektuen finantzaketan parte hartzeagatik (beste entitate ekoizle edo argitatzaile batzuek egindakoak), baldin eta 66 ter artikuluaren Bat, Bi eta Hiru apartatuetan jasotako kenkarietarako eskubidea sortzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu.<br><br>Kenkari hau erabat edo partez bateraezina da entitate produktoreak edo argitatzaileak jaso lezakeen kenkariarekin.<br><br>Ikus aurreko taulan sustatutako jarduerak, 66 ter artikuluan jasotako kenkariei dagokienez.<br><br>Kenkari hori aplikatuko zaie, halaber, establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei edo jarduera ekonomikoaren etekinak lortzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei. | Ikus ehunekoak aurreko taulan, 66 ter artikuluaren Bat eta Bi apartatuetan jasotako kenkariei dagokienez.<br><br>Mugak:<br>- Ordaindutako zenbatekoaren **% 1,20** (soberakina entitate produktoreak aplikatu ahal izango du, 66 ter artikuluak ezartzen dizkion mugen barruan)<br>- Finantzatzaile guztiek aplikatutako kenkariak eta 66 ter artikuluaren Bat apartatuko kenkaria aplikatzen dutenek ezin izango dute 10 MMko muga gainditu egindako ekoizpen bakoitzeko, edo 3 MMko muga atal bakoitzeko.<br>- Kenkari hau aplikatzen duten zergadunen multzoak aplikatutako kenkarien eta foru arau honen 66 ter artikuluaren Bi apartatuko kenkaria aplikatzen duten zergadunek aplikatzen dituzten kenkarien guztirako batura ezin da izan artikulu horretan ezarritako milioi bat eurotik gorakoa. | Entitate produktorearekin loturarik ez izatea (SZFAren 42. artikulua).<br><br>Finantzatzaileak ez eskuratzea finantzatutako ekoizpenaren edo ikuskizunaren emaitzen gaineko jabetza eskubiderik.<br><br>Finantzaketa kontratu bat formalizatzea eta Ogasunari jakinaraztea. (epeak luzatu dira 2025etik aurrera hasitako ekitaldietarako).<br><br>Aplikatutako kenkarien eta ordaindutako zenbatekoen arteko alde positiboa sartzea finantzatzailearen BIan (39.9 artikulua).<br><br>Emandako funtsak ekitaldiko edo hurrengo ekitaldietako kostuak finantzatzeko erabili behar dira. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | EHUNEKOA | BETEBEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **66 quinquies artikulua. Kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak ezartzeagatik** | Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak honako hauek izango dira:<br><br>a) Ordutegiak malgutzeko neurriak.<br><br>b) Lanaldi jarraituaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea lehenago langileak lanaldi zatituarekin ari diren lanpostuetarako.<br><br>c)Telelanaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea edo zabaltzea.<br><br>d) Lanaldia murrizteko edo eszedentzia eskatzeko kasu berriak sortzea.<br><br>e) Doako haurtzaindegi zerbitzua jartzea langileen eskura, zuzenean edo hirugarrenen bitartez.<br><br>f) Enplegatuei bizilekuaren eta lantokiaren arteko joan-etorriak errazteko neurriak ezartzea. | Kuota likidoaren %5, aipatu diren neurrietako bat jasotzen duen Kontziliazio Plana ezartzen den ekitaldian, 2.500 euroko mugarekin.<br><br>Kuota likidoaren %15, plantillaren heren bat gutxienez Kontziliazio Planean jasotako neurrietako bati atxikita dagoen lehen zergaldian, 7.500 euroko mugarekin.<br><br>Mikroenpresek eta enpresa txikiek ehuneko 5 puntu gehiago izango dituzte. | Aplikatu beharreko lege esparruan nahitaez bete beharreko gutxienekoak gainditzen dituen Kontziliazio Plan batean jaso behar dira neurriak.<br><br>Neurriak aplika ditzaketen langile guztiek eskuragarri izan behar dituzte neurriok.<br><br>Zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

<table>
<tr><th>KENKARIA</th><th>PIZGARRIA</th><th>EHUNEKOA</th><th>BETEBEHARRAK</th></tr>
<tr><td rowspan="2">66 sexies artikulua Kenkaria borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara enpresek egindako ekarpenengatik.</td><td>Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara enpresek egindako ekarpenak.<br><br>Pizgarriaren oinarria: ekarpenen batura.</td><td>%15: enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren %1,5ekoak edo handiagoak eta %2,5 baino txikiagoak badira.<br><br>%20: enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako ekarpen horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren %2,5ekoak edo handiagoak eta %4 baino txikiagoak badira.<br><br>%25: enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako ekarpen horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren %4koak edo handiagoak badira, edo 36 urtetik beherako pertsonen aldekoak, kenkaria %25ekoa izango da.</td><td rowspan="2">Enpresaren ekarpenak langileei egotzi behar zaizkie fiskalki<br><br>Enpresaren ekarpenak negoziazio kolektiboaren ondorio izan behar dira.</td></tr>
<tr><td>Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria: 2025-01-01etik 2029-12-31ra bitartean hasitako zergaldietarako.</td><td>%10: enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako ekarpen horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren %1,5 baino txikiagoak badira</td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | EHUNEKOA | BETEBEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **66 septies artikulua Kenkaria enpresek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik.** | Enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako enpresa ekarpenak, 66 sexies artikuluan aurreikusitakoez bestelakoak<br><br>Pizgarriaren oinarria: ekarpenen batura. | %10: Enpresaren ekarpenak urteko soldata gordin osoaren %1,5ekoak edo handiagoak badira erakunde enplegatzailean edo 36 urtetik beherako pertsonen aldekoak, zerga sortzen den egunean | Enpresaren ekarpenak langileei egotzi behar zaizkie fiskalki<br><br>Enpresaren ekarpenak negoziazio kolektiboaren ondorio izan behar dira |
| | Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria: 2025-01-01etik 2029-12-31ra bitartean hasitako zergaldietarako. | %5: enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako ekarpen horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren %1,5 baino txiagoak badira | |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| KENKARIA | PIZGARRIA | EHUNEKOA | BETEBEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **66 octies artikulua Emakumeentzat eta 36 urtetik beherakoentzat enplegua sortzearen kenkaria** | - N. zergaldian kontratatutako pertsona bakoitzeko<br>- Lan kontratu mugagabearekin.<br>- Emakumea edo 36 urtetik beherakoa izatea<br>- LGS baino %10 handiagoko soldatarekin.<br>- Eta N aldia amaitu ondorengo 3 urteetan amaitzen den zergaldian jasotzen duen soldatak gutxienez une horretan indarrean dagoen LGSaren %70 gainditzea. | Urteko soldata gordinaren %35, kontratatzeko unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldataren kenkariaren mugarekin.<br><br>Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa eta aplikatzeko muga langileak egindako lanaldiaren araberakoa izango da, lanaldi osoari dagokiona kontuan hartuta. | Kontratazioa egiten den N zergaldiaren amaieran dagoen lan kontratu mugagabedun langile kopurua ez murriztea hurrengo hiru urteen barruan amaitzen diren zergaldietan.<br><br>Eta langile kopuru hori kenkaria sortu den (N) zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izatea. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

# ZUZENKETAK EMAITZAREN APLIKAZIOAN 37/2013 FA

<table>
<tr><th>MURRIZKETAK ZERGA OINARRIAN</th><th colspan="2">MOZKINAK NIBELATZEKO ERRESERBA BEREZIA (52. art.)</th><th>EKINTZAILETZA SUSTATZEKO ETA JARDUERA PRODUKTIBOA INDARTZEKO ERRESERBA BEREZIA (53. art.)</th><th>ENPRESEN KAPITALIZAZIOA BULTZATZEKO KONPENTSAZIOA (51. art.)</th></tr>
<tr><td>PIZGARRIAREN DEFINIZIOA</td><td colspan="2">▪ Kontabilitate emaitza positiboaren zenbatekoa,<br>▪ askatasunez erabiltzeko,<br>▪ erreserba bereziaren zuzkidurara bideratzeko.</td><td>▪ kontabilitateko emaitza positiboak duen zenbatekoaren % 65 (% 65 X)<br>▪ erreserba bereziaren zuzkidurara bideratuko bada (X).</td><td>Zerga ondorioetarako ondare garbiak aurreko ekitaldiaren aldean izan duen gehikuntzaren %a, erreserba berezi batera bideratzen bada eta ez kapital sozialera:<br><br>Orokorra: % 15<br>Mikro eta.txikiak: % 20</td></tr>
<tr><td rowspan="2">MUGAK</td><td>Orokorra</td><td>Mikroenpresak eta enp. txikiak</td><td rowspan="2">▪ Murrizketa (% 65X) ≤ % 45 ekitaldiko aldez aurreko ZOn<br>▪ Zerga ondorioetarako ondare garbiaren ≤ % 50eko erreserba saldoa</td><td rowspan="2">▪ Ezin izango da ZO negatiboa eduki edo oinarri hori gehitu.<br>▪ ZO nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak hurrengo zergaldietan kendu ahal izango dira, osorik kendu arte (ez dago denbora mugarik).</td></tr>
<tr><td>1. Kontabilitateko emaitzaren ≤ % 10eko murrizketa askatasunez erabiltzeko ekitaldian.<br>2. Ekitaldiko zergaren oinarriaren ≤ % 15eko murrizketa, emaitza eta ZO negatiboak aplikatzearen arloko zuzenketen aurretik.<br>3. Zerga ondorioetarako ondare garbiaren ≤ % 25eko erreserba saldoa</td><td>1. Kontabilitateko emaitzaren ≤ % 15eko murrizketa askatasunez erabiltzeko ekitaldian.<br>2. ≤ % 20ko murrizketa ekitaldiko aldez aurreko ZOn<br>3. Zerga ondorioetarako ondare garbiaren ≤ % 30eko erreserba saldoa</td></tr>
</table>

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.

| MURRIZKETAK ZERGA OINARRIAN | MOZKINAK NIBELATZEKO ERRESERBA BEREZIA (52. art.) | EKINTZAILETZA SUSTATZEKO ETA JARDUERA PRODUKTIBOA INDARTZEKO ERRESERBA BEREZIA (53. art.) | ENPRESEN KAPITALIZAZIOA BULTZATZEKO KONPENTSAZIOA (51. art.) |
|---|---|---|---|
| **OBLIGAZIOAK** | ▪ Erreserbako saldoa sartzea ZO negatiboan, harik eta zuzkidura egin osteko 10 urteetan baliogabetu arte.<br>▪ Erreserba ezin da eskuratu ZO negatiboan sartu arte.<br>▪ Zuzkidura egin osteko 10 urteetan ez bada ZO negatiboan sartu zuzkidura osoa, gainerako saldoa ZOn sartuko da + zenbatekoaren % 30. | ▪ Erreserba ezin da eskuratu hurrengo 3 urteetan.<br>▪ Epe horretako inbertsioak:<br>- Aktibo ez korronte berrian, 61.1 artikuluko kenkaria aplikatzeko eskubidea edukitzeko. Erreserbaren zuzkidura halako bi inbertitu beharko da (2X).<br>- 65.2. artikuluko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten elementuetan.<br>- Baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakundeetako partaidetzak eskuratzea lehen mailako merkatuan.<br>- Partaidetzak hazteko aukera handia duten mikroenpresetan eta ETEetan. Gehienez 100.000 €.<br>▪ Inbertsioa 5 mantendu behar da, edo aktibo ez korronte higigarriak badira, 3 urtez, horien aldi baliagarria laburragoa ez bada. | ▪ Erreserba ezin izango da eskuratu ZOn osorik kendu eta hurrengo 5 urteetan zehar.<br>▪ 5 urteko aldi horretan, zerga ondorioetarako ondare garbiaren zenbatekoak lehengoan jarraitu edo gora egin behar du, kontabilitatean galderak daudenean izan ezik. |

Oharra: gomendatzen da osorik irakurtzea sozietateen gaineko zergaren foru arauaren artikuluak eta dagokion arautegi bidezko garapena.